

TARTEAN DAUDEN GORPUTZAK

POESIA ESZENIKO PRAKTIKAK



METROKOADROKA KOLEKTIBOA

Aurkezpena

Gorputza eta buruaren artean, definizioa eta indefinizioaren artean, profesionala eta amateurraren artean, kalitatea eta probokazioaren artean, egia eta fikzioaren artean, eszenatokia eta publikoaren artean, aktorea eta pertsonaiaren artean, pertsonaia eta pertsonaren artean, teatroa dena eta ez denaren artean dagoena ere bada teatroa.

Norberak idatzitako testu laburretatik eta material autobiografikoetatik abiatuta, irudi fisiko poetikoen sorkuntza praktikatu dugu. Horretarako, performanceari loturiko imaginarioa, idazkuntza kolektiboa eta poesia bisualaren elementuak erabiliko ditugu, aktore-sortzailearen baliabideetan sakontzeko xedez.

Ikastaroko sormen prozesua

Hari bat proposatuko dugu, gai edo ideia bat nondik tiratu, zeinen inguruan hausnartuko dugun, nork bere aldetik lehenengo -horretarako ariketa edo etxeko lan batzuk planteatuko ditugu-, era kolektiboan gero. Partaide bakoitzak bere burua aktore-sortzailatzat har dezan baldintzak ezarriko dira. Elkarren arteko sinergia, partekatutako bibrazio bat eratuko dugu, zeinetik oholtzan landuko ditugun materialak sortuko diren.

Partaide bakoitza lagunduko dugu *dena* eta *daukanatik* oholtzan *dirudiena* eta *eskaintzen duenarantzko* bidaietan. Bidai hau indibiduala izango da eta aldi berean kolektiboa. Obra bat idatziko dugu gure gorputzekin, gure testuekin, gure oroitzapenekin, gure galdera eta zalantzekin. Obra bat zeinean *zerbait gertatuko den*.

“Bidai baten erdian, geu” izango den zerbait.

TARTEAN DAUDEN GORPUTZAK

poesia eszenikoa, umore absurdoa, performancea

“Si no pudiera escribir, en los momentos de euforia sería guerrillero, en los de pasividad, prestidigitador. Ser poeta incluye las dos cosas”

Joan Brossa

Metrokoadroka kolektiboa 2008ean sortu zenetik esperimentazio jarraian jardun gara, antzezlanak taularatzearekin batera: *Miss Karaoke, Mr. Señora, Su izan nahi, Salto, Poza, Hura ez da lekua...* Gure lanaren oinarriak honako hauek izan dira: **umore absurdoa, performancea, poesia bisuala.**

Poesiaren elementuak oholtzara eramateari garrantzia handia eman izan diogu beti. Poema batek eduki ditzakeen elementuak gorputzera eramaten saiatu gara: **erritmoa, musikaltasuna, irudi-kolpeak, metaforak, fragmentazioa, niaren agerpena, edertasunaren bilaketa.** Horregatik, gure sormen prozesu kolektiboak **irudi poetiko fisikoen sorkuntzatik** abiatzen dira, horietatik abiatuta sortzen eta idazten ditugu pixkanaka eta kolektiboki lan eszenikoak.

Miss Karaoke antzezlanaren sortzearekin batera lehenbiziko aldiz gure kolektibokoak ez diren aktore batzuk igo ditugu oholtzara, eta antzezlanak inpakto bizia izan du publikoarengan. Beste aktore batzuekin lan egiteak gure estiloa, estetika, sormen prozesuak diseinatzeko eta formulatzeko ekarri digu. Aurretik sekula egin ez genuen zerbait izan da lan hau, INTUIZIOAN konfiatu izan dugulako beti gure sorkuntzetan, gehiegi arrazionalizatu gabe. Gure sormen prozesuak besteei formulatzeko beste ate batzuk zabaldu dizkigu ordea, besteak beste TARTEAN DAUDEN GORPUTZAK ikastaro hau eskaini ahal izatea.

Ikastaroan egingo duguna

Honetara gatoz beraz: hiru egunez ikasleekin osatutako taldearekin poesia eszenikoaren munduan murgilduko gara. Planteatuko dugun bideak hiru ardatz izango ditu:

1. Ikastaroaren aurretik “etxekolan” moduko batzuk bidaliko dizkiegu ikasleei, ikastaroa hasterako material bat eduki dezagun denok.
2. Irudi fisiko poetikoen sorkuntzan murgilduko gara, bakoitzaren materialak oinarri hartuta.
3. Irudi fisiko poetikoak taldean landuko ditugu, antzezlan baten sorkuntzako lehen etapa simulatuz: dibertigarriena, sorkuntza aldetik libreena izan daitekeen sorkuntza kolektiboaren hasierako etapa.

Irudi fisikoetatik abiatuta sormen prozesu kolektibo batean landu daitezkeen tresna batzuk praktikatuko ditugu ikastaro honetan.

BIOGRAFIAK

Oier Guillan Bermudez (Donostia-Orereta, 1975). Idazlea, kazetaria, antzerkigilea. Hainbat liburu kaleratu ditu poesia eta antzerkiaren arloan, azkenak *Ate hautsiak* (Arabako Foru Aldundia, 2008), *Eskuen sustraiak* (Susa, 2009) eta *Herio heroi/Arra.Arraroa* (Artezblai, 2010), *Hura ez da lekua* (Txalaparta, 2012), *Elkartasun basatia* (Susa, 2013), *Mr. Señora* (Txalaparta, 2016) eta *Zauri Bolodia* (Txalaparta, 2018). 2008tik Metrokoadroka kolektiboko partaidea da, bertako kideekin taularatu ditu aktore zein zuzendari gisa *Miss Karaoke*, *Poza*, *Su izan nahi*, *Salto* eta *Zertarako Hegoak* bezalako lanak. Dejabu panpin laborategia, Anakrusa eta Rouge Elea taldeekin kolaboratu du, eta *Gabrielen lekua* eta *Nola belztu behar zuria* emanaldi hibridoetako kide izan da.

Javier Barandiaran (Donostia, 1969) Ados Teatroa, Trapu Zaharra, Théâtre du Rivage, Théâtre du Versant, Hika eta Huts Teatroa-rekin aritu ondoren, Genève-ko L'Alakran-Oscar Gómez Mata-rekin dabil egun *La Conquête de l'Inutile* antzezlanarekin biran, baita Rouge Eléa-ren *Ceci est la couleur de mes rêves*-ekin. Aldi berean, bere sormen kaotikoa libre utzi eta J.B. Pedradas zigilupean dihardu, neurri txikiko hainbat ikuskizun sortuz. Hala nola, *Errare Hymnvm Est*, *Pepinos Podridos (en el frigo)*, *No Estoy Para Nadie*, *Aquí va a venir un cataclismo (El diario de Montse Miguèlez)* eta *Bélmez*, azken hau karteleran oraindik. Metrokoadrokarekin aktore-sortzaile jardun da *Poza*, *Salto* eta *Su Izan Nahi* lanetan eta zuzendari artistiko *Zertarako hegoak*, *Gabrielen lekua* eta *Miss Karaoke* lanetan.

Metrokoadroka kolektiboa (Oiartzun-Orereta, 2008)

www.metrokoadroka.eus

Metrokoadroka hainbat arte diziplinetan dabilzan hamaika lagunek osatu dugun kolektiboa da, helburu honekin: hala arte eszenikoetan nola arte plastikoetan sor daitezkeen proiektuak sortzea, laguntzea eta zabaltzea, beti ere kulturarekiko ikuspegi kritikoari eta esperimentazioari lehentasuna emanaz. Arte diziplina ezberdinen arteko hartu-emanak da esperimentazio horren oinarri nagusietako bat. Arte plastikoei dagokionez, 2014an Oiartzunen zabalduko Ehuntze sormen espazioaren baitan gauzatzen dugu hainbat proiektu (sormen klaseak, mikroerrezitaldiak, arte azoka...).

Arte eszenikoei dagokionez, hauek izan dira gure azken lanak:

Miss Karaoke (2017-...)

Mr Señora (2016-2018)

Hautudeterminazioa (2015-2016)

Nola belztu behar zuria (2014-2016)

Su izan nahi (2015-2016)

Salto (2014-2015)

Zertarako Hegoak (2013-2015)

Poza (2012-2014)